

## **KONTROL MOZIOA**

### **Aiete pasealekuaren eta Oriamendi pasealekuaren arteko bide segurtasuna hobetzeko, trafikoa bartzeko eta bizikleta bidea egiteko proiektuaren obran atzera egin izana dela eta**

Ayem Oskoz Urrutikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 16an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **AZALPENA**

Martxoaren 12an jakin genuen Aiete pasealekuaren eta Oriamendi pasealekuaren arteko bide segurtasuna hobetzeko, trafikoa bartzeko eta bizikleta bidea egiteko proiektuaren obran atzera egin behar izan dela proiektuaren aurrekontuan akats bat izan delako.

Gogoratu behar da proiektu honen lehen ikerketa txostenak hiru urte baino gehiago dituela eta Udaltzatzen hiru ez dela gai izan proiektua aurrera ateratzeko; oraingo honetan aurrekontu bat zuzen ez egitegatik. Eta gainera ez dugu ezagutzen balizko zuzenketa hori noiz eman litekeen.

Horrez gain, ezagunak dira bertako auzo elkartearekin dauden desadostasunak behin betiko proiektuak planteatzen duen ibilbidearekin, eta Udaltzatzen hiru ez da bizilagunekin adostasun batera iristeko gai izan. Proiektu honen egoera, une honetan, oso kezagarria da.

Zinegotzi-ordezkaritari galdetuta ea noiz egingo den zuzenketa hau eta noiz egon litekeen proiektu hau martxan, ez zuen jakin datarik ematen eta momentu honetan proiektua kolokan dago.

Horregatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Aiete pasealekuaren eta Oriamendi pasealekuaren arteko bide segurtasuna hobetzeko, trafikoa baretzeko eta bizikleta bidea egiteko proiektuaren lanak urtea amaitu baino martxan jartzea.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Aieteko bizilagun elkartearekin adostasuna lortzeko ahalegina egin dezala proiektu honetako ibilbideari dagokionez.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Ayem Oskoz Urrutikoetxea  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia